

Hazi Hezi



Alvaro BEÑARAN

Psikomotrizista-pedagogo

FRUSTRAZIOA

Bi urte betetzera doan Ainara alabari, hainbat gauza ez egiteko esateak erreparoa ematen digu, ez baitakigu frustrazioa sortzen diogun ala ez.

ESAN LITEKE haurraren lehenengo urtean gurasoek ia dena eman behar diotela. Omnipotentzia-bibentzia izan behar du umeak. Hau da, “Ni seguru nago, behar dudan guztia ematen didate, zaintzen naute, ongi sentitzen naiz”, esperientzia positiboa bizi du, ongi sostengatuta dagoelako. Hori da lehenengo oinarria.

Oinarri sendo horren gainean, hain zuzen, oinarri hori daukalako hasi daiteke errealitateak sortzen dituen frustrazioak onartzen. Hala, gurasoek jakin behar dute haurra poliki-poliki frustra dezaketela. Eta, frustratzeak ez du esan nahi haurrari aukerak murriztea, erreferentziak ematea baizik. Adibidez: itxarotea. Helduak sukaldeko lana bukatu beharra dauka eta haurrak zerbait eskatzen dio. Helduak esan diezaioke haurrari egiten ari dena bukatu egin behar duela eta pixka bat itxaroteko, egiten ari dena amaitu arte. Haurra, oro har, baliabideak eskuratzen doan heinean, bere buruarekin egoten ikasten joaten da. Beti, ez du zertan helduarengandik zerbaiten zain egon. Pixkanaka, bakarrik egoteko gaitasuna garatzen joaten da, eta berak gustuko duena egiteko gaitasuna ere bai.



Hazi Hezi aldizkaria (8. zenbakia)

http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2018/07/1532347864-8.Hazi%20Hezi.pdf

Hazi Hezi



Alvaro BEÑARAN

Psicomotricista-pedagogo

FRUSTRACIÓN

“Decir a mi hija Ainara, que va a cumplir dos años, que no haga muchas cosas nos da reparo, porque no sabemos si le causamos frustración o no.”

SE PODRÍA DECIR que en el primer año del niño o niña los padres le tienen que dar casi todo. El niño o niña debe tener una vivencia de Omnipotencia. Es decir, "Yo estoy seguro, me dan todo lo que necesito, me cuidan, me siento bien", vive una experiencia positiva porque está bien sostenida. Esa es la primera base

Sobre esa base sólida, y precisamente porque tiene esa base, puede empezar a aceptar las frustraciones que genera la realidad. Así, los padres deben saber que el niño o niña puede frustrarse poco a poco. Y, frustrarse no significa reducir las oportunidades al niño, sino darle referencias. Por ejemplo: esperar. La persona adulta tiene que terminar su trabajo en la cocina y el niño o niña le pide algo. La persona adulta puede decirle al niño o niña que tiene que terminar lo que está haciendo y que debe esperar un poco hasta que termine. En general, a medida que el niño o niña va adquiriendo recursos, va aprendiendo a estar consigo mismo. No siempre tiene por qué esperar algo de la persona adulta. Poco a poco irá desarrollando la capacidad de estar solo/a y de hacer lo que le gusta.



Hazi Hezi aldizkaria (revista número 8)

http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2018/07/1532347864-8.Hazi%20Hezi.pdf